

## Ingeniaritzako titulazio berriak 2013-2014rako

2012/11/15

Mondragon Unibertsitateak gaur bere eskaintza akademikoa aurkeztu egin du, non Goi Eskola Politeknikoatik hazitzen dihoa ikasleen, enpresen eta sozietatearen beharrak asetzeko.

### Ingeniaritza biomedikoa

Etorkizunean hazkundera izango duela aurreikusten den ingeniaritza berri hori Arrasateko campusean emango da, eta Mondragon Healthekin batera egindako proiektua da. Ingeniaritzaren ikuspuntutik osasunaren alorrean murgildu nahi du MUK, osasunaren esparruan sortzen diren arazoak ebazteko gai izango diren pertsonak trebatzeko asmoz.

Graduak presentziazko formatua izango du, eta 2013ko irailean jarriko da abian. Helburua zera da: ingeniaritzaren ezagutzak eta trebetasunak biomedikuntzaren eta osasunaren alorrean txertatzea, osasun-zientziekin batera jardunez, alor horretako teknologia, produktu, ekipamendu, prozesu eta zerbitzuak diseinatu eta garatzen laguntzeko. Horri esker, osasun-zientzien esparruan dagoen langile kualifikatuen hutsunea betetzea lortuko litzateke.

Hartara, ingeniaritza biomedikoan ekipamendu, produktu eta zerbitzu biomedikoak diseinatu, garatu, kudeatu eta zainduko dituzte, gizarte-aberastasuna sortu eta pertsonen osasuna hobetzean inpaktu handia duten aurrerakuntza teknologikoei erantzun egokia emateko moduan.

Profesional berri horiek lan-merkatu zabala izango dute: diagnostikorako ekipamendua, tratamendurako eta errehabilitaziorako ekipamendua, bizi-kalitatea hobetzeko ekipamendua, eta kirol errendimendua hobetzeko ekipamendua. Gainera, ingeniaritza biomedikoko proiektuak zuzentzeko aukera ere izango dute, aukerak antzematek hasi eta merkatuan ezarri arte.

### **Ekoingeniaritzak Donostialdeko ORONA Ideo - Innovacion City Poloan.**

Gainerako bi ingeniaritzak, Energia Ingeniaritza nahiz Prozesu Industrialetako Ekoteknologiako Ingeniaritza -biak ere ekologiarekiko geroz eta sentiberagoa den gizartearekin bat datozenak- Mondragon Unibertsitateak Donostialdean duen campus berrian emango dira, ORONAK eta MONDRAGONek sustaturiko ORONA IDeO -Innovation City Poloan. Polo hori enpresa/teknologia-zentroa/unibertsitatea berrikuntzarako ekosistema bat da, Europan aitzindaria, eta nazioartean energia-gaien berrikuntzaren inguruko erreferentzia bihurtu nahi duena. Punta-puntako eta etorkizuneko gaiak ikertuko dira bertan, hala nola energia-eraginkortasuna, iraunkortasuna, ekoteknologia, biltegitratzea eta energia-kudeaketa.

Poloa bera horren adibidea da. Alde batetik, zero energia-balantzea duten eraikinak ditu (hau da, energia alorrean kanpoko iturririk behar ez dutenak), kontsumo eraginkorrekoak direlako eta energia berriztagarrien iturri propioak dituztelako. Gainera, proiektua bera energia iraunkorra beste era batean kudeatzeko ikerketa-xede da. Azkenik, arkitektura paisaiari egokitzen zaio, eta iraunkortasunean nahiz ekologian abangoardiakoa da.

Mondragon Unibertsitateak enpresak/energia-zentroak/unibertsitateak partekatzen duten eremu erkidea eskaintzen du, proiektuak elkarrekin ikertu eta garatzeko, eta ikasleek enpresetako eta teknologia-zentroetako ikertzaileekin partekatzeko eremu eta jarduerak.

### Energia Ingeniaritza

Gradu hori presentziazkoa izango da, eta energiaren esparruan enpresen premiei erantzuneko dieten gaur egungo eta etorkizuneko



energia-premiak antzemateko ingeniariak prestatzeko helburua du. Ildo horretan, ikasleek sistema, prozesu eta produktuak ikertu eta diseinatuko dituzte. Historian izan den energia-kontsumorik altuena dagoen testuinguru honetan, inoiz baino beharrezkoagoa da beraren erabilera eta sorkuntzan ohiturak aldatzea eta energia-eraginkortasuna eta energia berriztagarrien erabilera hobetuko duten teknologia eta sistema berriak garatzea.

Energiaren sektoreak aukera handiak izango ditu etorkizunean, sektore horretan espezializatutako profesionalak falta direnez, horien premia handia dagoelako.

### **Prozesu Industrialetako Ekoteknologiako Ingeniaritza**

Estatuan titulazio berri-berria da, orain arte Alemanian baino ez delako eman. Presentziazko formatua du eta produktuak sortzen direnean, ingurumenean duten inpaktua murrizteko, prozesu "berdeak" txertatuko dituzten ingeniariak sortu nahi ditu. Titulu horrek fabrikazioan, energiaren esparruan eta produktuen bizi-zikloaren optimizazioan (hau da, produktuak sorreratik bizi-amaierara arte duen ingurumen-inpaktuan) adituak izango diren profesionalak sortu nahi ditu. Alderdi hori geroz eta garrantzitsuagoa da, baliabideak eta materialak eraginkortasunez erabiltzea ekonomiaren garapen iraunkorraren oinarri bilakatu den une honetan.

Ingeniaritzako prestakuntza jasotzeaz gain, ikasleek materialen fabrikazioaren, ekoizpenaren eta energia-kontsumoaren inguruko ezagutzak ere barnerratu dituzte, batez ere energia berriztagarrien eta ingurumen-ezagutzen esparruan. Europar Batasunak datozen urteetan sektore hori bultzatu nahi du eta, beraz, profil hori duten lanpostuak sortuko dira estatuan nahiz estatutik kanpo.

### **Gainerako ingeniariak**

Hiru ingeniariak berri horiek Goi Eskola Politeknikoan dagoeneko abian diren ingeniariak-graduak gehituko zaizkie. Guztiek ere industria-sektorearen erronkei aurre egiteko gai izango diren pertsonak sortzeko asmoa dute, teknologian nahiz antolakuntzan. Horregatik, etorkizuneko ingeniariak, goi mailako prestakuntza teknikoa izateaz gain, taldean eta nazioartean lan egin ahal izateko konpetentziak ere izan beharko dituzte. Mondragon Unibertsitateak eskaintzen dituen ingeniariak hainbat ataletan banatzen dira: Industria Antolakuntza, Industria Diseinua eta Produktuaren Garapena, Informatika, Mekanika, Telekomunikazio Sistemak eta Industria Elektronika.